

Albisteak

Pako Aristiren 'Euskal kantagintza berria' eta 'Kcappo. Tempo di tremolo' berrargitaratu ditu Ereinek

Egilea **Erredakzioa** - 2020/05/19

0



Pako Aristi (Argazkia: Erein).

ORAIN 35 URTE PLAZARATU ZITUEN ARISTIK SAIAKERA ZEIN ELEBERRIA; BERE LEHENENGO BI LANAK IZAN ZIREN

1985eko urrian argitaratu zuen Pako Aristik *Euskal kantagintza berria* lana. Saiakera periodistiko moduan aurkeztua izan zen. Bertan jaso zituen euskal kantagintzaren hastapeneko lehen 25 urteak, 1961ean Michel Labegueriek kantagintza berria inauguratu zuen lehen disko txiki hura argitaratu

zuenetik. "Urte askotan agorturik egon da saiakera hau, baina ez du galdu bere erreferente izateko gaitasuna, artikulua eta liburu anitzetan aipatua izan da, eta etorkizuneko ikerlariarentzat ezinbestekoa bilakatu da. Liburua aurkitzeko zailtasunak zituzten, eta orain hutsune hori betetzera dator berrargitalpen berri hau", adierazi dute Erein etxeko arduradunek.

Maiatzaren 21ean goizeko 11:00etan Donostiako argitaletxearen Youtubeko kanalaren bidez jarraitu ahal izango den ekitaldian *Kcappo. Tempo di tremolo* liburuari ere aipamena egingo zaio. Horixe du Pako Aristik bere lehenengo liburua, 1985eko udaberrian argitaratua. Orain edizio eguneratua argitaratu du Ereinek.

ETIKETAK Erein Pako Aristi Liburu aurkezpena Nobedadeak2020 Euskal kantagintza berria Kcappo Tempo di tremolo

Iruzkina idatzi

 Iruzkina idatzi...

Gune honek Akismet erabiltzen du zaborra murrizteko. [Ikusi nola prozesatzen diren zure erantzunen datuak.](#)

✉ Subscribe ▾



IDAZLEEN ZERRENDA

Aukeratu ▾

LIBURUA BILATU

Liburuak (1.264) ▾

Bilatu

EGUTEGIA

« MAIATZA 2020 »						
A	A	A	A	O	I	I
	28		30	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

AL. **Irakurle-taldea: Aramaio**
25 maiatza @ 5:00 pm - 6:30 pm

OG. **Irakurle-taldea: Getaria**
28 maiatza @ 6:30 pm - 8:00 pm

RECENT COMMENTS

Imanol Urbietan on *Karmele Jaiok irabazi du 2019ko 111 Akademiaren Saria*

Jon Unanue on *Karmele Jaiok irabazi du 2019ko 111 Akademiaren Saria*

Imanol Urbietan on *Karmele Jaiok irabazi du 2019ko 111 Akademiaren Saria*

Urnieta 49.2 on *Aitaren etxea*

Gasteiz 9.5 on *Erran gabe doa*

antolatzailea



M. ARMENTI

udal erakunde laguntzailea



ANDOAINGO UDALA

erakunde laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



GURI BURUZ



Euskal Herriko literaturazaleen bilgunea da 111 Akademia. Ia 200 irakurlek parte hartzen dute egitasmoan: liburuak irakurri, iruzkinak bidali eta urtero 111 Akademiaren Saria ematen dute. Zu ere akademiakide izan zaitezke.

Jarri gurekin harremanetan: akademia@111akademia.eus

JARRAI GAITZAZU

